

Euskal hiztegitzaren historiarako:

II. Gogoetak Urteren hiztegitzaz

JOSEBA A. LAKARRA
(EHU / UPV)

Abstract

This paper analyzes P. de Urte's lexicographical principles and practices in his Dictionarium Latino-Cantabricum (early 18th century) and in the vocabulary section from his work Grammaire Cantabrique Basque. Specifically, this research shows the weaknesses of the criticisms made on de Urte's works as well as the parallelism between the ideas underlying these two works and those of other European and Basque lexicographical studies (cf. Pouvreau, Harriet, Larramendi).

Nabarmena da eskuartearen dugun autuan euskal filologiak ez duela "pairatu" positibismo suharregirik, filologia *comme il faut* direnatan ematen den ekinean eta lan zehatzean oinarritutako etengabeko aurrerapena, "indukziozko ezagutza hutsa" bada ere: aliritziko usteen eta lehen esanen errepika baitira plazaratutako saio gehiegitan; datu eta ikerbide berririk gutxi.¹

Hiztegi Hirukoitza-k suposatu zuen eredu eta iturriarekiko ezezagutza da, azken finean, gainerako hiztegi zaharretan ere islatzen eta errepikatzen dena: zenbait eskuizkribaturik datza (Pouvrearena eta Sbarbi-Urquijo, esaterako), hainbatek ez du ikertzaileen ez lexikografoen ez hizkuntz historiaz zaletuen arreta berezirik erdietsi (*Tresora birur linguajetakua*-k edo Mikoletarenak, kasuko), eta erdietsi dutenek ere zenbait ohar solte, biobibliografiaz gehientsuenetan, izan da jaso duten guztia; ikeruaugotzat ditugunek ere (Urtek, demagun) badute eskaintzekorik.

1. Pierre Urteren hiztegia

XVII eta XVIII. mendeetako hiztegitzaz ari zelarik Larramendi eta Pouvreau-

* "Humanismo en el País Vasco" (E.H.U., I. Ruiz Arzalluzek zuzendua) eta "Unidad y diversificación del protovasco" (Eusko Jaurlaritzá, J. Gorrotategik zuzendua) ikerketa proiektuetan kokatutako lan hau Lakarra 1993ko atal bati dagokio. "Euskal hiztegitzaren historiarako: I. Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)" aldizkari eta urte honetako lehen alean argitaratu zen eta hurrengoetan egingo bide dira sail bereko haboro.

(1) Lasagabasterrek ez bide zuen bere aspaldiko euskal literaturaren historien errepasuan gertakari hau behar den bezainbatean markatu: hots, zenbaiten kopiatzen duten eta zeinen gutxitan berritzen eta ikertzen hastapenetik; hau agian barkagarriago litzateke gero monografiak ez balute hor lasai asko edango. Nik neuk Lakarra 1992ko zenbait pasarte erabili ditur lehen atal honetan, Lakarra 1993ko datu zenbaitez emendaturik; enparatuak azken honetatik jasoak dira funtsean

ren aipamena egin ondoren “mende orietako iztegi-gilleen artean bada irugarren bat: Pierre d’Urte praille ibiltaria, Ingalaterran galtzadundu zena. Onek, ordea, atzerrian egonik, etzuen iñoren libururik erabilli. Ongi gogoan zeukan Donibaneko izkera azaldu digu, orren parekorik ezpaitzuen gaiñera iñon arkitzen. Eta, batez ere, bere idazlanak eztira oraintsu arte argitara irten; bere iztegia, berriz, oraindik ez” zioskun Mitxelenak (1961: 361-362). Zorionez, eta Patri Urkizuren lanari eskerrak (ikus Urkizu 1989 batez ere) azkena aldatu da: eskura dugu Urteren hiztegia eta are hura bezain balios izan daitekeen haren bihurketa (ia osoa) ere.²

Pierre d’Urteren *Dictionarium latino-cantabricum* (Londres 1715) *a*-tik *commutus*-era baino iritsi ez arren, 2.457 orrialde ditu, 10.000 bat euskal hitzekin (Urkizu 1989ko bihurketaren arabera), errepikatuak zenbatu gabe. Urteren eskuizkribua M. Williams, welshezako antologia baten egileak jaso zuen eta honengandik W. Jones matematikoak; azken honen ikasle ziren Thomas eta George Parker-ek eraman zuten Shrirburn-eko gaztelura (apud Urkizu 1989: 436-437). Tamaina ez eze —ez jakin zenbatekoa erdiets zezakeen osa baleza Urtek— hiztegi honen aberastasuna ere handia da alor semantiko anitzetan bere argitaratzaileak markatu legez: landare, animalia, gizakiaren egunoroko bizitza (gorputza, jan-edanak, janzkera, eritasunak...), erakundeak eta jakintzak... (cf. Urkizu 1989: 127hh).

Oraindik Urtek berea egiteko erabili zuen latinezko hiztegia zein zen zehazki ezagutzen ez badugu ere,³ badirudi handitara egina zela, azpisarrera eta fraseologia aberatsaz hornitua: “hartu”-ren familian *acceptabilis*, *acceptilatio*, *acceptio*, *acceptissimus*, *acceptare*, *acceptare jugum*, *acceptare munera*, *acceptorius*, *acceptum*, *tabulæ accepti et excepsi*, *acceptum referre alicui*, *in acceptum referre*, *acceptum rogare*, *accepto liberare*, *acceptus*, *accepto vulnere*, *acceptum vulnus*, *acceptus*, *acceptissimus*, eta *nihil est acceptius* behintzat ikusten ditugu; “aingeru”-renean *angelica*, *angelica silvestris*, *angelicus*, *angelicum metrum*, *angelus*, *angerona*, *angeronalia*, *angeronæ festum*; “balezta”-ri dagokionean *balista*, *balista maior*, *balista minor*, *balysta chalybea*, *balista fulminalis*, *balista maior*, *balistarium*, *balistarius*...

Euskarazko ordainak ere ugari dira: *acceptabilis* “hargarria, agradagarria, maitágarria, onhetsgárria” dugu; *auerruncandus* “urrundu, khendu, aldaratu, apartatu beharra, debecaturicacoa, esmaratu(ricacoa), pacegatu(ricacoa), sossegatu(ricacoa), khassatu(ricacoa), urruntcecoa, [id gainerakoekin], urrundu behar dena [id gainerakoekin]” gisakoak ere ez dira bakan, arau baizen. Ordainok, oro har, hitz bakarrez ematen badira ere, usu perifrasiak erabil daitezke definizioak edo deskribapenak jasoaz:

abacus: “condatçeco maháigna, iscribatçeco mahagna, baçhera mahagna”;

æquipedus: “hirur cantaleco oign berdindúna”;

æstiva: “soldaduen udaco lekhuac vel soldaduen udaco egon lekhuac vel soldaduen neguco lekhuac, vel soldaduen negu quárterac”;

alogiæ: “çentçugabeco hitç haugnitç, haugnitç hitç çoratu, gueçurrac, perpaussetic

(2) Ia, sarreretan hitz bakoitzaren lehen adibidea baino ez baitu ematen.

(3) Urkizuk egitekoaren zailtasunaz ohartzeko dioskunez (1989: 94), “ez dirudi oso erraz denik Urteren ereduá aurkitzea. Ez zen izan L. Thomas-entzat eta ez ere neretzat, eta honen argigarri daiteke kasu, G. Matoré-k dioena garaiko hiztegietaz, alegia, XVI-XVII. mendeetan oso zail dela jakitea hiztegien artean zein zen ereduá, eta zein plajioa, zein lehena eta zein bigarrena (...) Baratxe ikertu ondoren hiztegia, eta berau aski berezia delarik, ausartuko ginatke esatera hiztegi bat baino gehiagotaz baliatu zela berea moldatzen hasterakoan, ez bakarrik Robert Estienne-renaz, baita ere, agian Londresen aurkituko zituen Davis-en bezalako beste latin-britannicum hiztegiez”.

campoco hitçac, perpaussari eztagózcan hitçac, contraco hitçac”;
aquipes: “ognac vel çangoac arin diruena, ogn arindúna...”;
assarius: “libera batetaco moneda cobrezcoa, liberabat pissatcen duen cobrezco moneda, sosbat ossossoa”;
basilica: “palaçioa, printçe etçhea, erregue etçhea, erregue egoitça, erreguegon lekhúa, jaüreguia, justicia gorthéa, hirico etçhea, herrico etçheä, estatuco etçheä, mercatarien etçhea erreäla”, etab.⁴

Sarrerren hurrenkerari dagokionez ia erabateko ordena alfabetikoa gordetzen da Lhwyd-en latin-euskara hiztegian bezalaxe, bataren eta bestearen gainerakoan ez bezala (cf. Urkizu 1983); halere, “A ante F”, “B ante E”, etab. markatzen da alfabetizazioa soilik bigarren letrara iritsiko bailitzan.⁵ Hiztegiaren hasieran dozena bat ohar dira euskal aditzaren egitura eta erabileraz eta, bereziki, hiztegian aditzak emateko moduz:

(2). *Quintuplex datur infinitivus modus omnium verborum (aliquibus exceptis quibus est nolomodo quadruplex) numeris distinctus ut 1. mintçátcea, 2. mintçatcen, 3. mintçatu, 4. mintça, 5. mintçatucu vel mintçaturen &.* cf. 1. aditçea, 2. aditçen, 3. aditu, 4. adi, 5. adituco, adituren, s. u. *auscultare*, etab.⁶

Urkizuren Urterekiko lanaz geroz orain haren bizitza eta lanaz lehengo aldean zehaztasun eta berri haboro izan arren, funtsean ez dirudi haren hiztegegintzazko irudia aldatu denik. Larramendiri helburu garbizaleengatik hainbat hitzberri asmatu beharra leporatuz (“aurre-iritzi eta helburu honekin gertatuko zaio aita Larramendiri hitz asko asmatu behar izatea kutsua eta usain jator bat mantentzearren”, Urkizu 1989: 107) eta garbizalekeriaren gaitzez mintzatu ondoren, “Urtek erdaratik hitz pila bat hartzen du, Leizarraga beskoiztarrak baino areago oraindik” kontrajartzen dio Urkizuk (1989: 107-109), “argi eta garbi ikusten da inongo aurre-iritzirik gabe, nondikan zetorren hitza gutxi axola zaiolarik zerabiltzala Urtek hitz guzti horiek, eta horrela jokatzeko arrazoi bakarra bere sorterrian eta hazerrian, Donibane Lohizunen, horrelaxe erabiltzen zituztela, duela” ere gehituz (ibid) eta *abade*, *abadesa*, *abandonatu*, *abantail*, *abarizia*... adibidetzat emanaz (1989: 438).

Gainerako Euskal Herrietan baino gehiago izango ote zen ez dakidan arren, Donibanen maileburik zatekeenik eta han ikas Urtek ez dut nik ukatuko; zalantza gehiago dut, Mitxelena aipatu eta Urkizuk berak askozaz zabalago ikertu Urteren bizitza ibiltaria ezagutu ondoren, guztien etorkia hangoa denentz. Urkizu bera da “Frantsetetik, gaztelaniatik, gaskoinetik eta bearneratik ez ezik, ingelesetik ere hartuko du Urtek hitz bat edo beste zuzen-zuzenean” (1989: 110) dioena eta litekeena

(4) Urkizuk ohartu legez (1989: 101-102) badira zenbait euskal errefracu, ez gehiegi, latinezko fraseologiaren ordain: *holáco sortçe haláco jaidura, inabaciác oignac arin ditu, uria errepirentçat ona nola fruituénçat*, etab. Ez, haatik, Urkizuk uste guztiak: haren 11.ak *Hequien ur-orénac badibóaz gure hare orenac beçala* “their hour-glasses running with water as ours do with sand”-en itzulpen huts dirudi.

(5) Alfabetizazioaz cf. Osselton 1989b, eta Barber 1976, Hayashi 1978, etab. Euskal kasu zenbaitetarako ik. Lakarra 1993ko 1. atala eta Lakarra 1994-n Harrietan ordenaz egin oharra.

(6) Sarrerako 4. oharren arabera (“in pluribus Cantabriæ partibus utitur tertio infinitivo modo cum verbo *possum* ut 3. *mintçatu naiteque* pro 4. *mintça naiteque*, *possum loqui*”) Urtek bizkaitar edo, agian, gipuzkoarren hizkeraren ezagutzaren bat bazuela pentsatu beharra dugu. Bereizkuntzaren galeraren kronologiak ikus “-ø / -tu bizkaiera zaharrean”, *Euskeraren Iker-Atalak* 1985, laburtua Lakarra 1986d-n.

da berariaz bilatuz geroz hor adibidetzat eman baino gehiago aurkitzea: ohar bedi, halere, puntua ez dela xehetasun hori, baizik eta mailebuen azterketak *ere* ez duela laguntzen lehen eta orain aurkeztu nahi zaigun irudia, hots, Urteren hiztegia = Donibane Lohitzuneko lexikoa.

Urkizuk Larramendiri han-hemen kontrajartzen dion Urteren herrikoitasuna, ordea, beste alderdi nagusi batetik *ere* pitzatua dugu: hiztegegile "jatorrei" kontrajartzeko asmatua dirudien Larramendiren irudi zabalduak ez du oinarririk (cf. Lakarra 1993 eta han aipatu bibliografian); orain dihoakigun mailebuen arloan erka bedi Urteren mailebuekiko eskuzabaltasuna Hirukoitzaren lehendabiziko orrialdeetan (gainerakoetan jaidura ez da aldatzen) eriden daitekeen ustezko jazargo eta garbiza-lekeriarekin:

abadesa, abadesea, abadia, abadearen barrutia, banderaduná, banderatua, abaninoa, abarcatu ("abarcar"), *abecé, abetoa, bezatu, abiatu, bigoteduna, abilidadea, testamentu bague, bizcochatua, ablativoa, abollatu, abollatzallea, abollantza, abollatzea, bolsatua, botiñatua* ("abotinado"), *botoitu, botoitzea* ("abotonar"), *abrigatu, arropaz, apirilla, broqueldu* ("abroquelarse")...⁷

Behin baino gehiagotan ukitzen ditu Urkizuk Urteren hiztegian ageri diren hitz konposatu eta eratorriak; *kontr-* dela eta "askotan azaltzen da eta oso herrikoa da" diosku adibideok hautatuaz: *kontragaitz, kontrapasio(ne), kontrapozoin, kontraparte, kontrapisu, kontrasorgin, kontregin, kontrintresa, kontrusantza...*" (1989: 111); Mitxelena eta Villasante aipatuaz euskarak *des-* aurritzia duela erabili gutxietan emankortasunen bat lortutakoa markatu ondoren Urkizuk Urterengan aurkitua damaigu:

hona hemen guk Urteren baitan edirendako adibide guti batzu, zerrenda luzeagoa *125-tik gora* [etzana neurea, J.A.L.] nahi duenak berregituran, aurreragoexago aurki dezakeelarik:

DES: *desagradagarria, desaitorra, desaltagarri, desamarratu, desandregaitu, desanimatu, desaprobatu, desaproposki, desarrazoin, desabazartu, desegarritu, desuztatu...* (1989: 110-111).

Aurrerago *alkimista* ez baina, "hobeki", *alkimigile, alkimigin* darabilela; *aitzin-, atze-, basa-, ber-, bertzen-, ema-, erdi-, ez-, haz-, lehen* eta *ugaz-* erakusten zaizkigu Urteren lekukotasun aipatu ohi den euskararen aurritzki eskasiaren faltari aitz (1989: 115; ikus bertan adibide ugariak); hitzen eraketari dagokionez "jator, herrikoiki eta bizi agertzen zaigularik hemen *ere*" aurkezten zaigu (1989: 124), etab.

Alabaina, orain arte bildutako datuek ez dute Urteren herrikoitasuna bermatzen Urkizuk nahi bezala; bera da, bestalde, 129. orrian Azkue eta Lhanderen hiztegiatan agertzen ez diren eta Larramendirenak "bezain egoki *asmatuak*" diren hitzak aipatzen dizkiguna,⁸ eta 134.enean "gure uste apalez Urte Larramendi bezala edo antzera ibilia izango zen *ere* Lapurdi eta Xuberoa aldeko belardi, zelai, soro, mendi, eta baserrietan galdezka eta bilduaz arloan hitz sailak, eta horrela bildutako izendegiez baliatuko zen dudarik gabe latin hiztegia itzultzeko eta hitz bakoitzari bere ordaina

(7) Larramendiren "garbizalekeriaz" ikus Lakarra 1985a eta 1993ko azken kapituluak.

(8) "cometa" *suizar, sulamargizagi, "arctophilas" hartzaina, hartzguardargizagi* dira berariaz asmatutzat eman bakarrak (!).

emateko" esaten bada ere, handik aurrera biltzen den zenbait alor semantiko begiztatu ondoren neke zaigu hori hertsia hertsian sinestea.

Hor diren *arimegoitza*, *arrazoinlari*, *basajainkotasun*, *bataialari*, *desaitorra*, *erdijainko*, *fraidetegi*, *katikisatzailen kronikiskribalari*, *oroitliburu*, *ostiatoki*, *obrasmatu*, *obrasmatzaile*, *bankarrutgile*, *bizerrege*, *dirutoki*, *parlamentegi*, *parlamentetxe*, *dirubankazain*, *barrimorroilgile*, *merkatuziazain*, eta hiztegiaren gorputzean eriden daitezkeen dozenak eta dozenak (*abuaztagarri*, *adarbestiadi*, *adiskidearazgarri*, *aflijigarri*, *agradagarritasun*, *abantzarazgarri*, *aitzinguardia*, *akusagarri*, *akusalari*, *alarguntasun*, *alदारontasun*, etab.) horrela ote?⁹ Erakusgarri huts honi gutxi (kopuruz zein atzizki ñabartasunean) deritzonak gogora beza ze testu moetauren aurrean garen eta artean honelakoetan zutela, bat izatekotan, idatzizko tradizioirik. Ohar bedi, orobat, ez diodala hitzok oro beraiek asmatuak direnik —batzu bai zalantzarik gabe—; aski zait bere lexikografi lanaren eta idazle ihardunaren artean gehiegizko kontraesanik ez dela erakustea-rekin.¹⁰

Etorkia-ren itzulpenean ere badira 1 *ethórquiã*, *bedadurabat*, *egozquia*, 2 *herrestacibillquiac*, 5 *agradagarria*, *guticiagarria*, 6 *etssáitassuna*, 10 *crueltassun*, *biburqueriez*, 11 *luçetassuna*, *çabaltassuna*, *haltotassuna*, *herrestaqui*, 12 *begaldun*, 14 *gaztarrassunetic*, 15 *orbóitçapéna*, 16 *abalquissuna*, *eztitassunean*, 114 *sariçáleac*, 115 *lebensorhúen*, *orboitçapéna*, 116 *esclabotassun*, *filistintarren*, 117 *çamaldunetan*, 118 *goybeltassuna*, 119 *sainduttassunean*, 120 *primuontassun*, 124 *bideangoaille*, 126 *adartrompeta*, *armadalekbuan*, 127 *ieloscor*, 128 *naussitassunari*, 129 *neurrimendútic*, *maitarassunétic*, 129 *guiçaescláboa*, *emaescláboa*, 130 *oboinquéria*, *emasorguina*, *imaijnadoratçáillea*... (cf. Lakarra 1992, 1993).

Etorkian ikusitakoaren aurka, ordea, *-tasun* eta *-keria* atzizkiak ez dira, ordea, bakar eta ez nagusi hiztegiatan. Zehazkiago, Gramatikako txikian badira *-tasun*-ez eratu 41 eratorri eta 9 *-keria*-z eginak, baina baita 14 *-garri*, 12 *-(z)ko*, 9 *-gile*, 7 *-tzaile*, 7 *-mendu*, 7 *-zio*, 5 *-ntzia*, 5 *-zain*, 4 *-gin*, 4 *-ari*, 3 *-dun*, 3 *-dun*, 3 *-dore*, 3 *-gai*, 3 *-tate*, 2 *-kor*, *-pen* 1, *-toki* 1, *-gabe* 1, *-oso* 1, *-dura* 1 eta *-tar* 1 ere.

(9) Orobat *abamita* "aitabrahirassoaren arreba", abavus "aitassoren aitassoa, aitabrahirassoa", *abavia* "amabrahirassoa, amassoren amassoa", *abavunculus* "amabrahirassoaren anája".

(10) Lehenago erakutsi bezala (cf. Lakarra 1985a, 1992, 1993), ez da bakarrik ezin manten daitekeela Larramendik hain ospe txarreko izan dituen hitzberriak erdal egokitzapenak betetzeko eta kanpotarrak isiltzeko asmo soil ez sortuak direla, berak baita aitortzen, (gaztelerez, haiek ere ulertzeko moduan) aldarrikatzen, hobe, "voces facultativas" delakoak guztiak asmatu dituela, lehenago horrelakorik ez baitzen sortu premiarik ere ez izaki. Premiak, ordea, garaian garaikoak eta zeinek bereak; Larramendi aurretik ere horrelakorik nozitu eta nolabait konpondu nahi izan zela dakusgu Harrieteen lekukotasunean (cf. Lakarra 1994). XVI eta XVII. mendeko idazle lapurtarren obretan ere hitzberri anitz bildu ahalko genukeela markatua dut dagoeneko, eta orobat hiztegiatan andoaindarraren aurretiko ohitura dugula ere euskal hiztegegintzan (Lakarra 1985a, 1993). Beldur naiz puntu hauek ez diren behar zen arreeta eta zehaztasunez aztertu. Larramendik erabiltzen zituen hitzberriak bere euskarazko zatietan eta hori, berak dioskunez, baita Hiztegia argitaratu baino lehen ere (cf. Lakarra 1985b). Ezin espero dezakegu, ez eta gutxiagorik ere, *Hiztegi Hirukoitz*-eko hitzberriak oro haren testu laburregietan agertzea; ez du lekurik, betarik ez beharrik. Bihur gaitzen berriro egilearen asmoetara eta gogora dezagun hitzberriak soilik teknika eta zientzi gaietakoak ("facultativas") direla; ez ditugu, beraz, hortik kanpo zer itxadon ez Larramendiren ez besteren testutan. Hitzberriak ez ziren oso premiako dotrina llibur eta simpleak egiteko; batez ere euskara idatzian tradizioirik bada erlijiozkoa izanik, hain zuzen. Alabaina, liburuak luzatuaz eta gaiak ugariatuaz eta jaikiago egin ahala lehen ukitu gabeko gauzak ateratzen ziren eta, horiekin batera, gauzak deitzeko berben beharra sortzen (cf. Mixtelena 1984a: 15). Larramendirekin egindakoren antzekorik egin zitekeela iruditu zait Urterekin eta hortik testuko saio laburra.

Eta asmaketa ez da Gramatikako hitz zerrendetan ere barutzen: badira zenbait Donibaneko (ez bestetako) hizkera herrikoitik jasoak begitantzen ez zaizkidanak: “redempteur” *errescatatçailla*; “ciel empiré” *ceru goréna*; “l’orgueil” *superbioa* ou *urguillutassuna*; “luxure” *lobitassuna*; “paresse” *naguitassuna*; “graisse” *guicentassuna*; “seichesse” *idortassuna*; “bonté” *ontassuna*; “politesse” *leguntassuna*; “blancheur” *churitassuna*; “ame raisonable, sensitive, vegetative” *arima arraçoingaya, sentigaya, neurrigaya*; “droiture” *çuçentassuna*; [nom substantif] “du bien” *ontassuna*; “richesses” *aberastassunac*; “amitié” *adisquidetassuna*; “sagesse” *prestutassuna*; “force” *indarra* ou *bortbiztassuna*; “honnêteté” *onbestassuna*; “tremblement” *ikbara* ou *ikbaramendua*; “esclavage” *esclabotassuna* ou *gathibutassuna* eta beste hainbat eta hainbat *-tasun* eta *-keria* baliatuaz sortuak.

Bi atzizkiok ez dira, ordea, bakar ez nagusi hiztegian. Har bitez orain Urkizuk eman euskara-erdera ordenan bihurturiko hiztegiako A letrako eratorriak:

abailegile, abantalatzaile, abantaildun, abantailos, abertigarri, abertitzaille, abisagarri, abisatzaille, aborregarri, aborrimendu, aborritasun, abrekeria, abuztagarri, adarbestiadi, adardun, adigarri, adimendu, adindun, adiskidearazgarri, adiskideketa, adiskideketasun, aditzaille, adoratzaille, afirmatzaile, aflijigarri, agortasun, agradagarri, agradagarritasun, gradamendu, agudotasun, ahaidetasun, abalkagarri, abalkeria, abalkizun, abantzarazgarri, abantzeragingarri, abategegi, abuntztegi, ailtzatzaile, aipamen, airezko, aitorgarri, aitorzaile, aitzindari, aitzinki, aitzintasun, aitzintzaile, akabagarri, akabantza, akometagarri, akometalari, akometamendu, akometatzaile, akomodamendu, akordatzaille, akusagarri, akusalari, akusatzaille, alarguntasun, alarguntza, aldagarri, aldarontasun, aldigaitzdun, aldun, alegatzaile, alegeragarri, alegeratasun, alegiazko, alferatasun, alferkeria, alkimigile, alkimigin, alkimilari, alnarborlidi, alnarboltegi, alogagarri, alogatzaile, alokatatzaile, altaragarri, altaramendu, altaratzaile, altzatzaile, amarragarri, ametsgile, amirabletasun, amiralari, amiratzaile, amistantza, amoinagile, amoregile, amultsudun, amultsutasun, anaiatasun, anbiziiodun, andoilagile, andregaitu, animagarri, animalario, animatzaile, anostegi, anplifikalari, anplifikatu, anplifikatzaile, anplifikazio, anpoiladi, anpoilagile, antzarategi, antzedun, apaingarri, apaintzaile, aparailatu, aparantzia, apartarazitzaile, apartatzaile, apartontasun, apeztasun, apostolutasun, aprobagarri, aprobalari, aprobatazaille, arartekotasun, arbolategi, arboltegi, arbuigarri, arbuialari, arbuizatzaile, ardietsgarri, arditegi, ardurazko, argiaratzaile, argiarazitzaile, argidun, arimategi, aringarri, arinkeria, arintasun, arkadadun, arkagile, arkobadun, armadun, armariogile, armategi, armatoki, armegintegi, armegintoki, arnegalari, arnegatzaile, arnegugile, arnotoki, arraintzale, arraoidun, arrantzale, arrapakari, arrapaki, arrapalari, arrauketa, arrazoinamendu, arrazoinatzaile, arrazoinidun, arrobalarri, arrobatzaile, arrolamendu, arrolatzaile, arropagile, arrosategi, artadun, arteztasun, artxidiakonotasun, artxipizpikutasun, asaldagarri, asaldamendu, asaldatzaile, asistatzaile, asmadun, asmaketa, asmalari, asmarazgarri, asmatzaile, asprekeria, aspretasun, astakeria, astrugaitzkeria, astrugaitzasun, atakalari, atakatzaille, ateragarri, ateratzaile, atrapalari, atrapatzaile, atrebimendu, atsegingile, atsekabedun, atsokeria, atsotasun, atzartasun, atzartzaille, atzemanlari, atzemanatzaile, aurkientza, aurkilari, aurkitzaile, aurtikilari, aurtikitzaile, ausikilari, ausikitzaile, azarkalari, azarkatzaile, azkartasun.

Corpus eraikuntzan izan ditzakedan hutsak gora behera, esanguratsu iruditzen zaizkit emaitzak: 44 *-tzaile*, 29 *-garri*, 26 *-tasun*, 18 *-(l)ari*, 17 *-dun*, 13 *-gile*, 11

-keria, 10 -(n)tz(i)a, 10 -mendu, eta kopuru txikiagoekin¹¹ -toki, -keta, -ki, -di, -lari, -men, -zko, -os, -kizun, -tegi, -zio, -ki eta -gin. Hots, testu arrunt gehienetan (egilearen itzulpenetan urrutirago gabe) askorekin nagusi den eta noiznahi hiztunari erabilterrazen zaion -tasun ez da lehena, hirugarrena baizik. E eta Z letretako sarrerak ere aztertu ditut hiztegiaren orrialde batzuetarik besteetara edota letren artean atzizkien erabilerari buruzko asimetriaren bat balitz ekiditeko (nahiz ez litzatekeen logikoa erdara-euskara hiztegi batean) eta hara emaitzak:

- E: 56 -tzaile, 29 -garri, 29 -(l)ari, 26 -zio(ne), 21 -toki, 14 -tegi, 14 -dun, 12 -gile, 11 -tasun, 11 -mendu, 10 -mendu, 10 -keria, 9 -(t)zaile, 6 -dura, 5 -gura, (eta -ti eta -di bana).
- Z: 15 -tzaile, 7 -tasun, 7 -(z)ko, 6 -dun, 4 -dura, 4 -gile, 4 -(l)ari, 4 -toki, 4 -garri, 3 -gin, 2 -keria, 2 -di.

Kopuru batetik aurrera gertakari hau halabehar hutsak agortzen ez duenez, nahita nahiezko dugu zer edo zer azalpen saio gisa aurreratzea. Urteren hitz sorkuntzarako grina, bestetara baino lehen, ez bide zaio inori zalantzaragi irudituko; ondotik, atzizki horiek eta ez bestelakoak erabiltzerakoan ez ote eraginik itzultzen duen latin hiztegia aditzen eta horietarik sortu lehenaldiko zein orainaldiko partizipio eta adjetiboen ugaritasunak?

Alabaina, erabilitako ereduak inposatu bazion Urteri hitz sorkuntza eta are hitzberrian nolakoa ere, ez ote dagokio berari konplituago Larramendirentzat eraiki irudi zabalduena?¹²

2. Urteren gramatikako hiztegitxoak

Urteren latin-euskara hiztegiak —belu bada ere— lortu badu zor zitzaion arreta, eta partez bederen, beharrezko zuen azterketa, ezin esan ez bata ez bestea erdietsi dituenik haren beste lexikografi lanak, hots bere *Grammaire Cantabrique Basque*-koak. Egilearen gainerako lanak bezala, argitaragabe zetzan 1900. urtean Wentworth Webster-en edizio penagarrian argitara eman zen arte.¹³

Geroztik ere ez da behar bezala miatu; bere txikian, hiztegi horretan badira are *Hauta-lanerako euskal hiztegia*-n sartu hitzen lehenagoko agerraldiak ere: *ajuta* “lave-

(11) Txiki baina esanguratsuak; ohar bekie -di atzizkiak sortuei. Kanpo utzi ditut -txo, -tsu edo -ka, -ki legez, eratorri berriak sortzeko gai ez direnak. Ez dut hiztegiokoen artean izan daitezkeen lehen agerraldiak bildu baina aurreko hiztegitaleekin ikusi (cf. Lakarra 1985a, 1993) eta Urteren jaiduretara hurbilduz geroz ezin pentsa uzta urria genukeenik.

(12) Larramendik erabiltzen zituen hizberriak bere euskarazko zatietan eta hori, berak dioskunez, baita Hiztegia argitara baino lehen ere (cf. Lakarra 1985b). Ezin espero dezakegu, ez eta gutxiagorik ere, *Hiztegi Hirukoitz*-eko hizberriak oro L-ren testu laburregietan agertzea; ez du lekurik, betarik ez beharrik. Bihur gaitetzen berriro egilearen asmoetara eta gogora dezagun hizberriak soilik teknika eta zientzi gaietakoak (“facultativas”) direla; ez ditugu, beraz, hortik kanpo zer itxadon ez L-ren ez besteren testutan. Hizberriak ez ziren oso premiazko dotrina liburuak luzatuaz eta gaiak ugarituaz eta jaikiago eginaz joanez gero, lehen ukitu gabeko gauzak ateratzen ziren eta, horiekien batera, gauzok deitzeko berben beharra sortzen (cf. Mitxelena 1984a: 15). Larramendirekin egindakoaren antzekorik egin zitekeela iruditu zait Urterekin eta hortik testuko saio laburra.

(13) Edizioaren gora behera gehienak (kopia hutsez baliatu beharra eta ordenagabeakoaz gainera, Urteren zaborria, etab.) prestatzailiak hitzaurrean (eta Urkizu 1989-k) azaltzen dituen ez ditut hemen errepikatuko; esan dezadan soilik, prestatzaileren eta ondoko zenbait ikertzaileen borondate on soilak ez duela asebetetzen, esaterako, gramatikagintzaren historiaren arduratua.

ment”, *aranondoä* “prunier”, *arbendolondoä* “amandier”, *arraçoñamendüä* “raisonnement”, *bassajauna* (ou *larreguiçõna*) “paisan”, *beyreguillëa* “un verrier”, *biarnessa* “biarinois”, *biliçarra* “assemblée”, *eçagutçaillea* “connoisseur”, *entssalâda* “salade”, *erragna* “gendre, nore”, *erreguetçhõa* “rotelet”, *erreguezcõa* “royal”, *errepubica* “republique”, *errotaçâgna* “meunier”, *faltadüna* “defectueux”, *frantssessa* “françois”... eta hitzaren lehen agerraldia ez denean aldaera, konposatu, eratorri edo bestelako emendakinik: cf. *arima arraçoingáya*, *sentigáya*, *neurrigáya* “ame raisonnable, sensitive, vegetative”, *barricaguillea* “tonnelier”, *bernatçaquiä* “l’os de la jambe” (*HLEH*-n “batez ere bizk.”-tzat emana), *burufúgna* “le çerveau”, etab.¹⁴

Nolanahi ere, bada bertan garrantzizkorik euskal hitzen historia hutsaz zaletuen multzoaz gainerako iker-eremuetako (gramatika eta hiztegitzaren historiako, demagun) langileentzat. Hiztegitxoia 15. orrialdetik 55.era bitartean hedatzen da, 750 bat hitz bilduaz guztira. Dakusagunez, antolakuntza ez da alfabetikoa (egilearen hiztegi nagusian —latinetik abiatuz, ordea— horrelakoa kausitu arren); 33. orrialdean “des choses qui se fondent” eta hurrengoan “des choses d’une boutique” zatiak ditugu, “gens de métier, etc” 35.ean, “des vers” eta “bêtes venimeuses” 36.ean “des metiers” eta “appartenances de l’ame” 37.ean, “des sens” eta “de quelques autres noms substantifs” 38.ean, “nom propre”, “surnom” eta “nom de villes, etc” 43.ean.

Alabaina, gauzak aldatu egiten dira 44. orrialdean “nom adjectif” deritzon atal berri bat hasten baita, 47.era arte hedatzen dena. Han “accident interrogatif” eta “accident redditif” aurkitzen ditugu; 48.ean “accident numeral”, “accident numeral ordinal”, “accident numeral distributif” eta “accident numeral partitif” 49.ean, “accident numeral universel”, “accident numeral particulier”, “accident de patrie, national” eta “accident diminutif” 50.ean, “accident possessif” eta “accident materiel” 51.ean, “accident local” eta “accident adverbial” 52.ean, “accident participial” 54.ean eta, azkenik, “accident tiré du verbe” eta “accident tiré du nom” 55.ean.

“Accident” horiek berehalakoan ohartarazten digutenez, Urte ez da berritzaile bere glosarioaren antolakuntzan: erka bedi bestela zazpi mende lehenagoko Ælftric apezpikuaren gramatikakoarekin:

Nomina: 19 lemmata about God, heaven, earth, mankind.

Nomina Membrorum: 101 lemmata about parts of the body, 33 lemmata about persons and church offices; 36 lemmata about family relationship; 132 lemmata about persons in society, artisans (including musical instruments and their players, parts of ships, etc); 42 lemmata again about persons and similar words; 45 lemmata as before, but whit words about intellectual work; 67 lemmata about characteristics of persons; 66 lemmata about natural phenomena, the weather and seasons.

Nomina Avium: 46 lemmata.

Nomina Piscium: 19 lemmata.

Nomina Ferarum: 74 lemmata obviously ordered according to the size of animals.

Nomina Herbarum: 68 lemmata mainly for flowers and herbs.

Nomina Arborum: 83 lemmata.

(14) Ez naiz hemen arituko beste lan berezi baterako gaia izango baita, hiztegi honetan (eta nagusian segurki) antzeman daitekeen Leizarragaren erabileraz. Dakidanez orain arte eragin hori markatu ez bada ere, itxadon zitekeen, Urkizuren lanetan Leizarragaren Ingalaterrako ezagutza —eta nor Urte baino bitarteko apraposagorik?— argiro agertzen baita.

Nomina Domorum: 232 lemmata on houses, in particular monasteries, churches (including utensils for mass, clerical vestments, etc.); 33 lemmata about armas, tools, towns, castles, metals; 66 lemmata which defy grouping, but which contain a number of theological terms (apud Hullen 1989: 112).¹⁵

Ikusten ari garen gramatikako hiztegian adjetibo eta partikulak badira ere izenaz gainera, ez da aditzik: eten nabarmena da haren eta gainerakoen artean.¹⁶ Bi aditz zerrenda ditugu gramatikaren beste zati batzuetan (302 hh eta 397 hh). Hain zuzen ere, 302. orrialdean hasten da “Des verbes auxiliez” deritzon atala; lehen burua “Verbes auxiliez par le verbe je suis, *ni naiz* eta par ses composez” dugu:

A l'infinifitif

1. Naitre, *sor*, *sortbu*, *sortçëä* ou *jayotçëä*, *jayo*.
2. Comparoitre, *aguer*, *aguertu*. Paroitre, se rendre visible... *aguertçëä*.
3. Viure, *biçi*, *biçitçëä*, ou *biçi içatëä*.
4. Faire, agir, *hari içatëä* ou *haritçëä*, *hari*.
5. Se remuer, *bigüi*, *bigüitçëä*, *biguitu*.
6. Parler, *mintça*, *mintçatçëä*, *mintçatu* ou *mintço*

53 aditz guztira.¹⁷ 397. orrialdean “Verbes auxiliez par le verbe *nic... dut* j'ay et par ses composéz outre les susdits” dator.

1. Abandonner, laisser. *Abandonatçëä*, *abandona*, *largatçëä*, *larga*, *vztëä*, *vtçi*, *abandonatu*, *largatu*.

(15) Erka bedi XIII. mendeko Goro diArezzo-renarekin: “rerum divinarum; rerum elementalium; rerum volatili-um; de muscis et apibus et similibus generibus volantibus; de fructibus erborum [sic]; de seminibus; (legumen, nis); de herbis et oleribus ortorum; de animalibus sylvestribus; de animalibus domesticis; de edificiis; de instrumen-tis rusticis; de edificiis et instrumentis urbanis; de suppellectilibus et vasis domesticis secundum ordinem partium domus; de suppellectilibus camere; de utensilibus et rebus convenientibus; de instrumentis et utensilibus coquinae; de utensilibus et vasis dispensae et aliis rebus; de homine et partibus eius; de interioribus corporis humani; de ornamentis vestium et calciamentis” (apud Rossebastiano in Lakarra 1993). xv. mendeko eskuizkribuan, baina bi bat mende lehenagoko iturburuarekin, gordetzen da Padovan Goro diArezzo-k hasi bidetik Rossebastiano-k “glossario rigorosamente semplificato, senza annotazione di ordine grammaticale o etimologico o derivatorio” deskribatua: (de homine); de infirmitatibus capitis; de vestibus et suis pertinentibus; de bello et pertinentibus ad domum; de oreo et pertinentibus ad oreum; de camera et pertinentibus ad cameram; de caminata et pertinentibus ad caminatum; de coquina et pertinentibus ad coquinam; de penu et suis pertinentibus; de stabulo et pertinentibus ad stabulam; de *li pegori over de li bestij piceni* de torculari et suis pertinentibus; de orto et pertinentibus ad ortum; de planta et suis pertinentibus; de civitate et suis pertinentibus; de arte et eius pertinentibus” (ibidem). Gonbara bedi Lakarra 1993ko § 1.2.h-ko Ibarguen-Cachopín kronikako hitz zerrendarekin.

(16) Hamazazpigarren mendeko euskara-islandiera zerrendak gaika antolatutik ditugu (cf. Bilbao et alii 1991): ahaidetasuna (I 1-6, II 78-85), Jaungoikoa eta natura (II 1-10), lanbideak (I 8-15), untziko gauzak (I 16-19, II 11-38), jan-edanak (I 20-34, II 39-50), jantziak (I 39-53, II 102-118), elizako gauzak (I 54-75), gorpuz zatiak (I 76-104, 121-132, II 86-101), lanabesak (I 105-120, 133-155, 178-191, II 51-70), animaliak (I 156-177, II 119-160), denbora eta eguraldia (I 192-218), untziko eta basertiko gauza eta animaliak (I 219-464a), zenbakiak (I 464b, II 228c), adjetibo, partikula eta esamoldeak (I 465-519, II 161-228b).

Egitura honek badu Urteren gramatikako hiztegiaren eitea, han bezala nominalia eta gainerakoak bereizten baitira, azken hauetan zenbakiak kokatuaz, aditzak eta adjetiboak landa. Cf. De Jongh-ek (1949: 29) “These earlier vocabularies [frantses eta ingelesentzako Errenazimenduko gramatiketakoak] were heavily weighted with nouns” diosku. Hala dirudi lehendabiziko ehun hitzak miatuaz bestelakorik ez aurkitzean; alabaina, bi zerrendetan akabu-rantz asko gehitzen dira aditzak nagusigoa ere erdietsiaz.

(17) Ohar batean “tous les verbes marqués à la + sont neutres et actifs et sont assistez par les uerbes sum et habeo.” diosku.

2. Abhorrer. Abhorritçéa, abhorri, abhorritu.
3. Açheter. *Erostéa, eross, erossi.*
4. Aimer. *Mađtatçéa, mađta, mađte içatea, mađtátu.*
5. Attaindre, obtenir. *Ardieštéa, ardiets, ardietsi.*
6. Adorer. *Adoratçéa, adora, adorátu.*

Horrela “90. Voir. *Ikbustéa, ikbuss, ikbussi*” arte.¹⁸ Aditza gainerako kategoriatarik bereiztea ez da Urteren asmakizuna, jakina: dagoeneko Ingalaterran XV. mendean bildutako *Promptorium Parvulorum*-ean *Nominale eta Verbale* banatzen dira (cf. Stein 1981).¹⁹ John Palsgrave-ren hiztegia *Lesclaircisement de la langue francoyse* (1530)-ren hirugarren zatia da eta ordura arteko ingeles-frantsesetarik zabalena dugu, 20.000tik gora sarrerarekin. Lehenagoko lanek glosak, zenbait ehunkada gehienez ere, dituzte. Haatik, ez da tamainarena Palsgrave eta aurrekoen lanen artean den diferentzia bakarra; Palsgraverena da gramatikaren zati oso eta betetzat emandako hiztegia. Honela, haren hiztegiak aurrekoen ez dituzten gramatikazko berriak eta ondorengoan eredutzat baliagarri bilakatzen duten antolamendu abantailak dituela diosku Kibbee-k (1987: 179). Izan ere, aurrekoen kasuan —estilo eta edukin ezberdintasunekin— frantses hitzak gaika antolaturik dira, ingelesezko ordain soilak emanaz, gramatika informaziorik gabe, generoa markatzeko aitzinean ezarri ohi zaien artikulua lekat.

Palsgrave eta Urterentzat —“ohizko gramatikagile” ororentzat legez— hiztegiak (izenkiena zein aditzena) gramatikaren funtsezko (eta ezin bereiztuko) zati ditugu,²⁰ donibandarrarena zehatzago miatzen badugu ohar gaitezke harentzat gramatika ez dela hiztegiaren “akzidenteen” hedadura baizik: goian ikusi nominal ugarien pare —eta ez ahantz “des parties de l’oraison” zeritzola zati hari—²¹ jokatzen dute aipatu bi aditz zerrenden ondoren datozen “à l’indicatif et à l’imparfait”, “au parfait et plus que parfait”, “au futur”, “à l’impératif”, “à l’optatif” eta gainerakoek. Hara, esaterako lehen izan aditzaz konjugatuen artean eman bi lehendabizikoen jokoak:

1. De naitre, *sortçéaz*, de naitre, pour naitre, *sortçeco*, pour naitre, à naitre, *sortçera*, pour naitre, *sortçéagatic*, en naissant, *sortçéän*, à naitre, à devoir naitre, *sortçecöä*, *sorthu beharra*, ou *beharricacöä*, né, *sortbuä*, pour etre né, pour auoir esté né, *sor-*

(18) “Parmi ces verbes susdits, il y en a aussi qui sont auxiliez par le uerbe sum, *ni naiz*; ils sont marquéz à la + tout de même” dio amaieran.

(19) Bada ezberdintasun bar, ordea, bi multzo horiek *letra bakoitzaren barnean* egiten baitira (Alfonso de Palencia garaikideak bezala; cf. Malkiel 1960). Azken finean, Urterena sailkapen bikoitza da izenei dagokienez (kategoria eta alor semantikoa) eta soila (kategoria) gainerakoetan.

(20) *Pace* Subirats-Rüggeberg (1994: 317) zinek Kramer Schottelius eta Stieler-engandik berezi nahian —eta bide batez “lexical grammar” delakoaren ereduren bar. aldarrikatzeko— “conceptual framework of traditional grammar which maintains an arbitrary separation between the study of the dictionary and the study of grammar” baitio. Subirats-Rüggeberg berak ematen du aski arrazoi bere artikuluan juxtu kontrakoa defendatzeko. Bi orrialde goragoko baieztapena (“Kramer’s / *veri fundamenti* is not a mere addition to the dictionary; rather the dictionary and the grammar make up an indivisible whole, as the treatment of the lexicon which is made in the dictionary constitutes an application of the theory of word structure developed in the grammar”) zehaztasun osoz ezar dakieke Harriet edo Pouvreauri eta baita goian aipatu bi alemaniarrei ere, beste askoren artean (cf. Lakarra 1994 eta, batez ere, 1995a).

(21) Ez eta haren aitzinean, ortografiaren ondotik “etimologia” (*jainkoa, Lapburdi, Baiona eta Donibane*-ren uestezkoak, alegia), datorkigula.

ihüägátic, d'estre né, d'avoir esté né, *sorthúaz*, etant né, *sorthu eta*, *sorthuric*, *sorthurican*.

2. De paroître, *aguertçéáz*, de paroître, pour paroître, *aguertçéco*, pour paroître, à paroître, *aguertçéra*, pour paroître, *aguertçéägátic*, en paroissant, *aguertçéän* à paroître, à devoir paroître, *aguertçecoä*, *aguertu beharra* ou *aguertu beharricacóa*, parú, *aguertúä*, pour avoir paru, *aguertuägátic*, d'avoir paru *aguertúáz* ayant paru, *aguertu eta*, *aguerturic*, *aguerturican*.

Urteren gramatikak badu izan ere Palsgraverena baino arrunt beranduagokoa delarik artean garatua zen, eta euskal hizteigintzan ere Voltaire eta Mikoletarengan (Pouvrearengan ere bai asmoz bederen; cf. Lakarra 1993, 1995) ikusi dugunez arrastoak utzia zen, beste tradizio baten ezaugarririk: eskuliburu (gramatika eta hiztegi) modu berria agertua zen elkarrizketa bildumak gehituz lehenagoko elementuei. Urterenak bederatzi solas ditu: 1. "Bi adisquideren artean"; 2. "Bi andreren artean"; 3. "Ait'onen seme eta estudiant gazte baten artean"; izengabeko 4., 5., 6., 7. eta 8.a eta 9. "Bi jaun adisquideen artean hica elkharri mintçatçen çaiçcola"; hauen ondoren "behar diren gauçac escatçeco" emendakina.

a b c d a b c
Escarazco solassac / edo / DIALOGOAC / Bi adisquideren artean.

b c d a c a b
Discours / ou / DIALOGUES CANTABRIQUES / Entre deux amis

Elkarrizketotan diren galderek zein esaldiek aldaera bat baino gehiago dute, ikasleak ikusitako joskera baliokide diferenteak eta berben sinonimoak kausi ditzan. Ezarri dudan tituluari ezeze, hitz bakoitzaren gaineko letra ikurra elkarrizketa osoan ematen da, orobat gainerako elkarrizketa guztietan eta haien aurretik diren *arduraco hizcuntçac* "phrases familiaires" delakoetan (470-502. or.)

<i>Arduraco hizcuntçac</i>	<i>Phrases familiaires</i>
a + a +	
Lo nago ou lo narça...	Je dors
a + b b	a b
Vtç naçaçu lo eguitera	Laissez moy dormir a dormir
Lo çauðe? ou lo çautnça?...	Dors tu?
a + b	+ b a
Ohean çare... oragno?	Es tu encore au lit

.....
(Webster 1900: 471)

Usadio hau euskal testu zahar urrietan zabalduegi denik ezin esan; asmatua eta erabilia zen orduko, jakina, Europa osoko gramatika eta hizkuntz irakaskuntza hedatuko tradizioetan. *Refranes y Sentencias*-eko kidetetasunak ez ote digu sendotzen, lehenago defendatu bezala, euskarazkoak behar duela izan gehienbat originala (cf. Lakarra 1990)?

Bibliografia

- Aarsleff, H., et al. (arg.), 1987, *Papers in the History of Linguistics. Proceedings of ICHoLS III, Princeton 1984*, Studies in the History of the Language Sciences, 38), John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- Akesolo, L., 1967, «Un diccionario vasco inserto en las *Mémoires de la langue celtique*, de Bullet (1775-1760)» BAP 23. 141-147.
- Allières, J., 1985, «Statut et limites du polymorphisme morphologique. Le verbe dans la *Grammaire Cantabrique Basque* de Pierre d'Urte (1712) (1ère partie)», in *Symbolae* II, 899-919.
- Altuna, P., 1967, «Larramendiren iztegi berria», *Euskera* 12, 139-300.
- Alvar Ezquerria, M., 1982, «Diccionario y gramática», *LEA* IV, 4, 152-212.
- , 1992, «Tradición en los diccionarios del español», *Revista de la Sociedad Española de Lingüística*, 22/1: 1-23.
- Anderson, J. D., 1972, *The development of the English-French, French-English Bilingual Dictionary: A Study in Comparative Lexicography*. Ph. D. diss., Baton Rouge, Louisiana State Univ. (Ann Arbor Univ. Microfilm).
- Arakistain, J. de J. M^a, [1746], «Suplementos al *Diccionario Trilingüe del P. Larramendi*» F. Fitaren arg., *Revista de Ciencias Históricas* I-II, Barcelona 1881.
- Azkarate, M., 1991, «Basque lexicography in F. J. Hansmann et alii (arg.), *Dictionnaires*. De Gruyter, Berlin-New York, III, 2371-5.
- , 1992, «Larramendiren hitz-eraketa», in Lakarra (arg.) 1992b, 207-219.
- , 1993, «Oihenarten lexiko-sorkuntza» lan argitaragabea.
- , 1994, «Oihenarten lexiko-sorkuntza», In *Oihenarten laugarren mendeurrena. Euskaltzaindiaren XII, Biltzarra. Iker-8*, 49-77
- Azkue, R. M^a, 1928, «Manuscritos vascos en Inglaterra», *Euskera* 9, 218-227.
- Bakker, P., G. Bilbao, N. G. H. Deen & J. I. Hualde, 1991, *Basque pidgins in Iceland and Canada*, ASJU-ren gehigarriak, 23, Donostia 1991 (= ASJU 25/2. 315-467).
- Barber, Ch., 1976, *Early Modern English*. London: André Deutsch.
- Bilbao, G., 1992, «Pouvreuren hiztegi laukoitza», ASJU 26/2, 341-389.
- Colón, G., & A.-J. Soberanas, 1985, *Panorama de la lexicografía catalana*, Encic. Cat., Barcelona.
- Faithfull, R. G., 1962, «Teorie filologiche nell'Italia del primo Seicento con particolare riferimento alla filologia volgare», *Studi di Filologia Italiana* 20. 147-313.
- Faust, M., 1981, «Schotelius' concept of word formation» in Geckeler et alii (arg.), 359-370.
- Gallina, A., 1959, *Contributi alla storia della lessicografia italo-spagnola dei secoli XVI e XVII*, Olschki, Firenze.
- Hartmann, R. R. K. (arg.), 1986, *The history of lexicography. Papers from the Dictionary Research Centre Seminar at Exeter, March 1986*, (Studies in the History of the Language Sciences, 40), John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- , (arg.), 1989, *Lexicographer and their works*. Univ. of Exeter.
- Hayashi, T., 1978, *The theory of English lexicography, 1530-1791*, (Studies in the History of Linguistics, 18), John Benjamins, Amsterdam.
- , 1980, «Principles of English lexicography in the early 17th century», in Koerner (arg.), 1980, 94-101.
- Hüllen, W., 1989, «In the beginning was the gloss. Remarks on the historical emergence of lexicographical paradigms» in James (arg.) 1989b, 100-116.
- , 1990, (arg.), *Understanding the historiography of linguistics. Problems and projects. Symposium at Essen, 23-25 November 1989*. Nodus Publikationen, Münster.
- Ilson, R. F., 1986, «Lexicographic archeology: comparing dictionaries of the same family» in Hartmann (arg.), 1986, 127-136.
- James, G., 1989, (arg.), *Lexicographers and their works*. University of Exeter.

- Jones, W. J., 1991, «*Lingua teutonum victrix?* Landmarks in German lexicography», *HEL* 13: 2, 131-152.
- Jongh, W. F. J. de, 1949, *Western languages manuals of the Renaissance*. The Univ. of New Mexico Press, Albuquerque.
- Kerejeta, M^a J., 1991, «Oihenart Silvain Pouvreauren hiztegian», *ASJU* 25/3. 865-899.
- Kibbee, D. A., 1986, «The Humanist period in Renaissance bilingual lexicography» in Hartmann (arg.), 1986, 137-146.
- Koerner K., 1980, *Progress in Linguistic Historiography*, (Studies in the History of the Language Sciences, 20), John Benjamins, Amsterdam.
- , 1987, «Bilingual lexicography in the Renaissance Palsgrave's English-French lexicon (1530)», in Aarsleff et alii (arg.), 1987, 179-188.
- Lakarra, J. A., 1984, *Euskal Thesauruserako Gaiak: Hegoaldeko Testuak (1700-1745)*, tesina argitaragabea, EHU-Gasteiz.
- , 1985, «Larramendiren hiztezigintzaren inguruan», *ASJU* 19/1, 9-50.
- , (arg.), 1988, *Hiztegiak eta testuak*, EHU-ren Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- , 1990, «RS-en testukritikazko arazoak: Hernán Núñezengandik itzulia ote? (XVI. mendeko bizkaierazko erretrauz II)» in E. Perez & P. Urkizu (arg.), *Patxi Altunari omenaldia*, Mundaiz, EUTG, 177-190.
- , 1991, «Testukritika eta hiztegiak: Harriet eta Larramendi», in *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, (ASJU-ren gehigarriak, 14), Donostia.
- , 1992, «Larramendirekin aurreko hiztezigintzaren historia: aztergai eta gogoeta», in *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoaingo Udala-Euskaltzaindia-Gipuzkoako Foru Aldundia-Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Andoain, 279-312.
- , 1993, *XVIII. mendeko hiztezigintzaren etorkiez*. Doktorego tesi argitaragabea, EHU-Gasteiz.
- , 1994, *Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)*, "ASJU-ren Gehigarriak", Donostia.
- , 1995a, «Gogoetak Pouvreauren hiztegiez eta hiztezigintzaren historiaz», *ASJU-n* argitaratzeko lana.
- , 1995b, «Hirur lengoaietan tresora: hiztezigintza historia eta tipologia», *ASJU-n* argitaratzeko lana.
- , prestatzen, *Euskal hiztegi zaharrak: Bilduma bat*.
- Lépinette, B., 1989, «Contribution à l'étude du *Tesoro* de Sebastián de Covarrubias (1611)», *HL* 16/3. 257-310.
- , 1991, «Étude du *Tesoro de las dos lenguas* (Paris 1607) de César Oudin», *Iberoromania* 33. 28-58.
- , 1992, «La postériorité lexicographique de Nebrija. Les *Vocabularius Nebrissensis latin-français* (1511-1541)», *HL* 19: 2/3. 227-260.
- Lope Blanch, J. M., 1990, *Estudios de historia lingüística hispánica*, Arco/Libros, Madrid.
- Matore, G., 1967, *Histoire des dictionnaires français*, Larousse, Paris.
- McArthur, T., 1986, «Thematic lexicography» in Hartmann (arg.), 1986, 157hh.
- Michael, I., 1970, *English grammatical categories and the tradition to 1800*, Cambridge UPress, Cambridge.
- Malkiel, Y., 1960, «A typological classification of dictionaries on the basis of distinctive features» in Householder & Saporta, (arg.), *Problems in Lexicography*. Indiana Univ. Press, Bloomington.
- Mitxelena, K., 1958, «Introducción» in Mitxelena & Agud (arg.) 1958. Orain *SHLV-n*, II, 762-782.
- , 1959, «La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)», Orain *SHLV-n*, II, 900-912.
- , 1961, «Euskal iztegiak XVII-XVIIIgarren mendeetan», Orain *SHLV* I, 361-372.

- , 1970, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Centro de Estudios Históricos de Vizcaya, Bilbo. [Azkueren hiztegiaren 1984eko berrargitalpenean hitzaurre gisa ere emana].
- , 1988, *Sobre historia de la lengua vasca*, J. A. Lakarra (arg.), *ASJU*-ren Gehigarriak 10, Donostia, 2 lib.
- , & Agud, M., 1958, *Nicolao Landucci. Dictionarium Linguae Cantabrigiae (1562)*, *ASJU*-ren Gehigarriak 3, Donostia.
- Osselton, N. E., 1973, *The Dumb linguists. a study of the earliest English and Dutch dictionaries*. Leiden-Oxford UP.
- , 1989a, «On the history of dictionaries» in Hartmann (arg.), 1989, 13-21.
- , 1989b, «Alphabetisation in monolingual English dictionaries to Johnson», in Hartmann (arg.), 1989, 165-173.
- Oyharçabal, B., 1989, «Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)», *ASJU* 23/1, 59-73.
- Padley, G. A., 1976-85-88, *Grammatical theory in Western Europe 1500-1700. The Latin tradition*, Cambridge Univ. Press, Cambridge; *Trends in Vernacular Grammar I-II*, Cambridge Univ. Press, Cambridge.
- Quemada, B., 1968, *Les dictionnaires du français moderne (1539-1863)*, Didier, Paris.
- Salmon, V., 1985, «The study of foreign languages in 17th-Century England», *HEL* 7/2. 45-70.
- Sánchez Regueira, I., 1982, «César et Antoine Oudin: étude comparative des éditions de son *Trésor* et son importance dans le domaine de la lexicographie», *Verba* 9, 329-340.
- Sarasola, I., 1980, *Materiales para un thesaurus de la lengua vasca*, tesi argitaragabea, Bartzelona.
- , 1983, «Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos», *ASJU* 17, 69-212. Berrarg. *ASJU*-ren gehigarriak, 11, Donostia, 1989.
- , 1984hh, *Hauta-lanerako euskal hiztegia*, GAK, Donostia.
- Seiffert, L., 1990, «The vernacularist and latinist Justus-Georgius Schottelius and the traditions of German linguistic purism», in Hüllen (arg.), 1990, 241-261.
- Snell-Hornby, M., 1986, «The bilingual dictionary. Victim of its own tradition», in Hartmann (arg.), 207-218.
- Starnes, T. de W. & G. E. Noyes, 1946, *The English dictionary from Cawdrey to Johnson 1604-1755*, Chapel Hill, N. Carolina. Berrarg. G. Stein-en sarrerarekin, John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia, 1990.
- Stein, G., 1985, *The English dictionary before Cawdrey*. Lexicographica Series Maior, 9, Tübingen, Niemeyer.
- Steiner, R. J., 1970, *Two centuries of Spanish and English bilingual lexicography 1590-1800*. The Hague, Mouton.
- , 1986, «The three-century recension in Spanish and English lexicography», in Hartmann (arg.), 1986, 229-239.
- Subirats-Rüggeberg, C. 1994, «Grammar and lexicon in traditional grammar: the work of Matthias Kramer and Johann Joachim Becher», *Historiographia Linguistica*, XXI-3, 297-350.
- Urkizu, P. (arg.), 1971, «Tresora hirur linguayetakua frantzes, española eta heskuara», *ASJU* 5. 175-191.
- , 1983, «Edward Lhwyd-en hiztegi poliglota (1703)», *Euskera* 28/ 2.387-401.
- , 1986, «Euskara xvi-xvii. mendeetako zenbait idazle atzerritarrengan», *ASJU* 20/2. 343-50.
- , 1988, «Pierre d'Urteren hiztegia», in Lakarra (arg.) 1988, 75-99.
- , 1989, *Pierre d'Urteren hiztegia*, Deustuko Unibertsitatea-EUTG, Donostia, 2 lib.
- Urte, P., [1712], *Grammaire Cantabrique Basque*, W. Webster (arg.), Bulletin de la Société Ramond, Bagnères-de-Bigorre, 1896-1900.
- Vinson, J., 1893, «Les manuscrits basques de Pierre d'Urte, de Saint Jean de Luz», *RLPbC* 26. 255-269.